

FUNTSEZKO SOZIETATEAK

Gure ideia aurrera eraman ahal izateko hainbat faktore hartu behar ditugu kontuan.

Alde batetik, argi izan behar dugu nori dagokio barik-aren ardura ekonomikoa, hau da, finantziarioa. Horretarako, “Bizkaiko foru aldundia” eta “Eusko jaurlaritza” arduratzen da. Bakoitzari %50 dagokie finantziarioari dagokionez.

Foru aldundiaren barnean, hainbat alderdi daude; ingurune kultura, turismo ingurunea, hezkuntza ingurunea..., kasu.

Gure kasuan, garraioen alderdia aztertuko dugu. Honetaz, Bizkaiko garraio Partzuergoa arduratzen da. (Consortio de transportes de Bizkaia, “ctb”). Honek, barik txartela sortu zuen bidaiak ordaintzeko esandakoaren bidez (barik-arekin).

Beste aldetik, barik-arekin lan egiten gaudela kontuan hartuz, eta finantziarioaren arloaren arduradunak aztertu egin ondoren, hauekin hitz egiteko beharra daukagu. Are gehiago, eratu dugun ideia, hau da, barik-aren sistemaren ekarpen berria jakinarazi beharko diegu arduradunei.

Ezinbestekoa izango da guretzako, haien baimena eta onarpena bereganatzea, gure ekarpena dakartzan diru-sarreraz arduratu edo behintzat lagundu ahal izateko. Gure bazkideei proposatzeko ideia, hasieran, bi aukera zituen.

Batetik, Bizkaiko garraio partzuergoak eta eusko jaurlaritzak aplikazio honen bidez lortutako diru sarreren %50a bereganatzea zen helburu bat. Ondorioz gu geuk bereganatuko ginatke erdia (%50).

Beste aldetik, gure aplikazioa saltzea zen helburua, eta, beraiek administratu dezaten nahi duten moduan. Hala eta guztiz ere, gure aplikazioaren onarpena bermatzeko adostu genuenean aukerarik hoberena honako hau izango zela:

Gure aplikazioa onartuz gero, pertsona bakoitzak “Transpowl” deskargatzen duen bakoitzean dirua irabaziko dugu. Hau da, deskarga bakoitzari dagokion mozkinen arabera, guk %50a bereganatuko dugu eta, Bizkaiko garraio partzuergoak eta eusko jaurlaritzak beste %50a. Hori dela eta, ez gara sartuko geroago aplikazioak dakartzan diru sarreretan haiek baimentzeko.

Laburbilduz, gure helburu nagusia izango da bazkideei ideia erakustea eta deskargatzearekin etekinak lortzea. Beste guztia beraientzako izango dute eskuragarri. Azken finean lortuko dugun diru hori nahikoa izango da aplikazioa sortzeak dakartzan inbertsioei aurre egiteko eta etekinak lortzeko.